


Auto ekologikoa, pobrezia munduan, graffiti adierazkortasuna eta liburuak/ordenagailuak dualtasuna dira Gipuzkoako haurren artean kultura ekintzailearen balioak sustatzeko Kosmodisea ekimenaren laugarren edizioan landuko dituzten gai nagusiak.

Proposamen horiek izan dira "Ideia-jasa" fasean gustukoena eta ondoko ikastetxeetako ikasle-taldeek proposatu dituzte: Irungo La Salle; Lazkaoko San Benito Ikastola eta Zarauzko Orokieta Herri Eskola.

Auto ekologikoa, pobrezia munduan, graffiti adierazkortasuna eta liburuak/ordenagailuak dualtasuna izango dira Kosmodisearen 2009-2010 edizioan landuko diren lau gai nagusiak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuaren ekimenak Europako Gizarte Funtsaren diru-laguntza du eta kultura ekintzailearen eta kultura digitalaren balioak unibertitateaz kanpoko hezkuntza-alorrean sustatzea du helburu.



Hori da edizio honen Ideia-jasa fasean erabaki dena. Fase horretan, talde parte-hartzaileek ikasturtean zehar landuko dituzten proposamenak aukeratu dituzte. Lanketa hori lau gai/berrikuntzatan antolatu da: "Zientzia- eta ingurumen-berrikuntza"; "Herritarren berrikuntza: parte-hartze aktiboa"; "Kultura- eta arte-berrikuntza" eta "Teknologia- eta gizarte-berrikuntza".

"Zientzia- eta ingurumen-berrikuntza" kategoriaren barruan, proposamen irabazlea "Auto ekologikoa" izan da, Irungo La Salle ikastetxeko (DBH) "Piruletaraja" taldeak egina. Alor horretan, zientzia-berrikuntzaren esparruan proiektu sortzaile eta baliagarria eta planetaren ingurumena hobetzen lagunduko zuena proposatu behar zuten taldeek. "Auto ekologikoa" ekimenaren oinarrian, ibilgailu-mota horiek merkeagoak izan beharko luketenaren ideia dago, hala, horien erabilpena mundu guztira zabalduko bailitzateke.

"Herritarren berrikuntza: parte-hartze aktiboa" gaiari dagokionez, aukeratutako ideia San Benito Ikastolako (Lehen Hezkuntza 2) "Antzarrak" taldeak proposatu zuen "Pobrezia" izeneko ekimenaren barruan. Taldearen ekarpenaren oinarritzko ideia munduko aberastasunaren banaketa ez dela batere justua da eta, adibidez, iparraldeko herrialdeetan bizimailak askoz ere altuagoak diren bitartean, planetaren hegoaldean dauden herrialde askotan miseria larriena pairatzen dutela azpimarratu dute.

"Kultura- eta arte-berrikuntza" kategoriari dagokionez, ikastetxeetako taldeek landu beharko duten gaiaren proposamenak "Graffitiak" du izena eta lanketan kaleko arte-mota hori gazteek nola erabiltzen duten aztertu beharko dute.

"Teknologia- eta gizarte-berrikuntza" kategoriari dagokionez, lantzeko aukeratu duten gaia "Liburuak vs. ordenagailuak" dugu eta ezagutzaren digitalizazioak, liburu gehiegizko prezioak eta motxila pisutsuetan egunero garraiatzeak dakartzan oztopo fisikoak ekidinez, ikasleei nola lagun diezaiokeen hausnartzeko aukera eskainiko du.

HURRENGO ETAPAK

"Ideia-jasa" fasea amaitu ostean, talde parte-hartzaileek programa informatikoak eta eskuzkoak ezagutzen hasiko dira, simulatzailea probatu eta garatu beharreko ideien inguruko informazioa bilduko dute. "Entrenamendua" fasea datorren azaroaren 27ra arte izango da eta taldeek beren blog eta wikiak egokitzeko aukera ere izango dute.

Kosmodisearen ondorengo etapetan garatuko dira proiektuak hainbat teknologia erabiliz eta horietan, soinua, irudiak eta bideoak txertatuz.

Fono etapan, talde parte-hartzaileek beren proiektuaren beharra eta aukera zehaztuko dituzte, azken lana audio-formatuan aurkeztuz. Etapa 2009ko abenduaren 30ean irekiko da eta 2010eko urtarrilaren 25era arte iraungo du.

2010eko urtarrilaren 26tik martxoaren 15era, "Ikono" etapan jardungo dute taldeek. Etapa horretan, proiektua planifikatu, garatu eta burutuko dute, irudi bidez adieraziz.

Azkenik, "Mito" etaparen helburu nagusia bete beharko dute taldeek, proiektuaren promozioa eta hedapena bideo baten bidez burutuz. Etaparen iraupena martxoaren 27tik 2010eko maiatzaren 3ra izango da.

Kosmodisean parte hartzeko izen-emateko epea laugarren edizioaren bukaerara arte egongo da zabalik, hau da, 2010eko apirilera arte.

Azken finean, Kosmodisearen helburua Gipuzkoako ikasleen artean, balioak (sormena, norberaren buruarengan konfiantza izatea, ekimena, tolerantzia, esfortzua, gogoeta, etab.) eta trebetasunak (linguistikoak, digitalak, zientifikoak, etab.) garatzea da informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarrituz (blogak, wikiak, bideoak, argazki digitalak, mp3 audioak, etab.).

Pasa den urteko edizioan, Kosmodisea programak, 166 taldetan banatuta, 1.498 ikasle, 80 irakasle eta 34 ikastetxeren parte-hartzea izan zuen.

[Izen-ematea Kosmodisea 2009-2010](#)

[Gida azkarra Kosmodisea 2009-2010 \(2235 KB\)](#)

[Kosmodisea web-orria](#)